



G 2753046

"ENPRESA ZUZENBIDERAKO INSTITUTOA/INSTITUTE FOR
BUSINESS LAW FUNDAZIOA" FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK.

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA. IZENA

"ENPRESA ZUZENBIDERAKO INSTITUTOA/INSTITUTE FOR BUSINESS LAW FUNDAZIOA" izenarekin Euskal Autonomi Erkidegoan bere funtzioak garatuko dituen eta bereziki, fundazioaren xedeak gauzatzera zuzendua dagoen ondare autonomoa duen enpresa zuzenbidearen sustapenerako fundazio pribatua eratzen da.

Euskal Autonomi Erkidegoaren fundazioei buruzko 12/94 legean eta ezargarri diren gainontzeko arauen arabera eraenduko da.

2. ARTIKULUA. GAITASUN JURIDIKOA

Fundazioak berezko nortasun juridikoa dauka, legezko eta iharduteko gaitasun osoa duelarik. Ondorioz, ordenamendu juridikoan eraendutakoaren arabera, mota guztietako ondasun higigarri, higiezin eta eskubideak eskuratu, gorde, eduki eta edozein bide erabiliaz eskualdatu, saldu eta zamak jarri ahal

izango ditu; mota guztietako kontratu eta egintzak gauzatu; eskubideei uko egin eta epaitegi, auzitegi eta erakunde publiko zein pribatuen aurrean mota guztietako akzio eta salbuespenak tarteratu.

3. ARTIKULUA. IRAUPENA

Fundazioaren iraupena mugagabea izango da. Hala ere, estatutuetan eraendutakoaren arabera Zaingo Batzordeak iraungitzat jo dezake.

4. ARTIKULUA. ERAENTZA

Indarrean dagoen araubide juridikoa baztertu gabe, Fundazio hau, sortzaileek eratze-egintzan zuzenki edo zeharka adierazitako borondatearen, Estatutu hauen eta Fundazioaren gobernu organuek sortzaileen borondatearen interpretazio eta garapenean ezarritako xedapenen arabera eraenduko da.

5. ARTIKULUA. EGONGUA

Arrasaten (Gipuzkoan) Jose Mari Arizmendarrieta ibilbideko 5. zenbakian izango du finkatua bere egongua fundazioak. Hala ere, Fundazioaren Zaingo Batzordeak askatasunez egonguaren lekualdaketa erabaki dezake hola dagokionean, erroldan egongu aldaketa inskribatuz.

Organu hau Fundazioaren establezimendu edo delegazioen egoitzak zehazteko ahalmendua egongo da.



CLASE 2
2. MOETA



G 2753047

VI. KAPITULUA. FUNDAZIOAREN XEDEA

6. ARTIKULUA. FUNDAZIOAREN HELBURUAK

Fundazio honek berezko edo beste pertsona fisiko zein juridikoen elkarlaguntza ihardueren bidez, Euskal Autonomi Erkidegoan, enpresa zuzenbidea sustatzea izango du helburutzat.

Helburu orokor honetan oinarrituta, besteak beste, ondoko iharduerak jorratuko dira:

a) Enpresa, unibertsitate eta ikerkuntza zentruekin harremanetan, ikerkuntza eta garapen proiektuak bideratu, Enpresa Zuzenbidearekin loturik dauden arlo guztietan.

b) Ikerlarien formakuntza doktoretza mailan zein doktoretzaren ondorengo mailetan bideratu, eta arlo horretako tekniko eta profesionalen ezagupen-maila gaurkotu eta hobetzen lagundu.

c) Fundazioari dagokion arloan kurtsoak, bilerak, mintegiak, hitzaldiak etb. antolatu, eta ikerkuntza, ezagupen eta aurrerakuntza tekniko eta zientifikoek hedapenari lagundu.

d) Enpresa Zuzenbidearekin loturik dauden gaietan mota guztietako zerbitzuak eskaini.

e) Inguruko enpresen eraginkortasuna -arloan juridikoan- bultzatu, bai eta ekimen zein iharduera berriak sustatu ere.

f) Enpresa Zuzenbidearekin loturik dauden beste motako iharduerak bideratu.

Helburu zerrenda honek ez du izaera mugatzailearik, ez du derrigorrezko egiten helburu guztietan jardutea, ez eta beraien arteko inolako lehentasunik ezartzen. Fundazioak, beti ere bere espiritu zabalaren eremuan, askatasun osoa izango du une bakoitzeko inguruabarrak kontutan hartuz, Fundazioaren Zaingo Batzordearen eritziz egokienak diren jarduera eta xedeetara bere iharduerak zuzentzeko.

7. ARTIKULUA. ONURADUNAK

Fundazioak interes orokorreko bere helburuen artean, inpartzialitate eta objetibotasun erizpideen arabera ihardun beharko du bere onuradunak aukeratzeko, ezin izango delarik inolako diskriminaziorik eman.

Zentzu honetan, fundazioaren onuradunak nagusiki, enpresa zuzenbidearen inguruko ikerketa juridikoan interesaturik dauden pertsona juridikoak eta, batez



G 2753048

ere, enpresak, hezkuntz- zentruak eta administrazioa bera izango dira. Hauek lehentasuna izango dute gainontzeko onuradunen aurrean Fundazio honen helburuak kontutan hartuz, eta beti ere, onuradunak aukeratzeko ezarritako inpartzialitate eta objetibotasun erizpideak errespetatuz.

Banaka zehaztutako pertsonak ezin daitezke onuradun izan, eta prestazio fundazionalak ezingo zaizkie zuzendu fundatzaile, hauen ezkontide edo 4. gradurarteko ahaideei (azken gradu hau barne).

Fundazioak ematen dituen zerbitzuak direla eta, bere onuradunei kopuru bat ordaintzea galdatzen dienean, soilik galdatutako kantitate hori ordaintzen dutelako egingo da onuradunen zehaztapena.

Halaber, Fundazioaren berezko izaerak onuradunen zenbatekoa mugatzea eskatzen badu, hauen hautaketa eta zehaztapena Zaingo Batzordeak egingo du modu errebokaenez, aurkezten direnen meritu, beharrian, gaitasun ekonomiko, probetxua ateratzeko aukerak edo beste ezaugarri objetiboak kontutan izanda. Orohar,

ezin dezake inork, ez banaka ez taldeka, fundazio edo bere organuen aurrean, eman aurretiko onuren gozamina eskatu ezta hauen esleipena pertsona zehatzei inposatu ere.

8. ARTIKULUA. NORAKO ZEHATZAK

Fundazioak, Zaingo Batzordearen aurretiazko onarpenaz, bere objetuan jasotako helburu zehatz batetara ondasunak, edo hauek emaniko fruitu edo errentak zuzentzeko, ondasun hoiiek dohainezko tituluz eskuratu dituenean, emailearen borondatea zehatz mehatz errespetatuko du.


9. ARTIKULUA. HELBURUAREN GARAPENA

Fundazioaren helburua, ondoko bideen bitartez gauzatuko da:

a) Fundazioak berak, bere organuen bitartez, Zaingo Batzordeak onartu beharreko iharduketa egitaraua jarraituz.

b) Legearen arabekoak diren fundazio, elkarte, baltzu edo beste motatako erakunde juridikoak eratuz eta sortzen lagunduz.

c) Fundazioaren inguruan bereziki, bere helburuak lortzeko lagungarriak diren beste erakunde edo legezko zein pertsona fisikoen ihardueraren garapenean laguntza emanez.



G 2753049

d) Bere helburuak lortzeko asmoz, laguntza ekonomikoa, aholkularitza eta lanbide elkarlaguntza eskaini edo eman ahal izango du Fundazioak. Hortaz gain, edozein motatako dohantza eta diru-laguntzen ematea sustatuko du.

III. KAPITULUA. ZAINGO BATZORDEA

10. ARTIKULUA. OSAKETA

Zaingo Batzordea, Fundazioaren gobernu eta ordezkaritzarako organu goren da. Eratze eskrituran izendatuak dauden eta ondorengo 4 urteko epealdi jarraitako hautatuak diren gutxienez hiru eta gehienez hogeiki kidek osatua egongo da.

Ondorengo izendapenak Zaingo Batzordeak berak onartuak izango dira.

11. ARTIKULUA. AGINTEALDIA

Zuzenbidezko erakundeak ordezkatzeko dituzten Zaingo Batzordearen kideek, epe mugagabek egikaritutako dute mandatu hau, kide bakoitzak dagokion entitatean kontseilari, administrari edo ordezkari kargua duen bitartean. Adierazitako organuan bere funtzioak

betetzeari utzi edo legeak ezarritako utzerazpen zioen batean eroriz gero, automatikoki ordezkatuak izango dira.

12. ARTIKULUA. KARGUAK

Fundazioaren Zaingo Batzordeak, bere kideen artean Lehendakaria, Lehendakariordea -Lehendakaria ordezkatuak duena berau ez dagoenean, gaixotasunen bat duenean edo kargua bete gabe dagoenean- eta Idazkaria hautatuko ditu.

13. ARTIKULUA. ESKUDUNTZA

Fundazio honen Zaingo Batzordearen eskuduntza, Patronatuen ohizko eskuduntzetara hedatzen da, eta orokorrean, Fundazioaren goi gobernu, ihardularitza eta ordezkaritzaekin zerikusia duen guztira. Hala ere, organu honek bereak eta delegagarriak diren ahalmenak eskuordetu ditzake.

14. ARTIKULUA. AKORDIOEN EZTABAIDATZE ETA ONARPENA

Bat. Fundazioaren Zaingo Batzordearen bileretarako deialdia, bilera-eguna baino gutxienez astebete lehenago egingo du Lehendakariak.

Bi. Baliozko akordioak hartu ahal izateko, Fundazioaren Zaingo Batzordearen kideen gehiengoa beharko da bileran bertaratuta.

Hiru. Bertaratutakoen botuen gehiengo sinplez



G 2753050

hartuko dira erabakiak, berdinketa kasuan, Lehendakariaren botuak erabakiko duelarik.

IV. KAPITULUA. ERAENTZA EKONOMIKOA

15. ARTIKULUA. KAPITALA

Fundazioaren kapitala horrela dago osatua:

a) Sortzaileek egindako edo hitzartutako ondarezko ekarpenez.

b) Ondoren jaso edo eskuratu diren eta Fundazioaren kapitala gehitzera bideratuak dauden kantitateak.

16. ARTIKULUA. ONDAREA

Fundazioaren ondarea, ekonomikoki baloragarriak diren edozein motatako ondasun edo eskubidez osatua egon daiteke.

17. ARTIKULUA. BALIABIDEAK

Fundazioaren helburuak lortzeko behar diren ekonomi-baliabideak, ondorengo bide hauetatik lortuko dira:

a) Berezko kapitalaren errenta.

b) Gainontzeko ondasunen fruitu zein errentak.

c) Mota guztietako pertsona fisiko zein juridikoen-

gandik hartzen diren ekarpen, subentzio, dohantza, jaraunspen edo agintzak (legatuak).

18. ARTIKULUA. SARREREN NORAKOA ETA ADMINISTRAZIO

GASTUAK

Bat. Fundazioaren ondasun eta errentak beren helburuak gauzatzera modu zuzen eta berehalako batez lotuak egongo direla ulertzen da.

Bi. Fundazioak bere objektuari dagozkion iharduerak aldizkakotasun batez antolatuko ditu, helburu honekin, zerbitzuen urteko plangintza egin, berauen egikaritze modua eta esleipena onartuko direlarik.

Hiru. Fundazioak bere helburuen egikaritzarako, gutxienez, errenta garbien eta beste edozein kontzepturen arabera jasotako sarrerren %70a zuzenduko du jaso direnetik hiru urteko epean eta dagozkien zergak kendu ondoren.

Eraketa momentuan edo ondoren egin diren ondare zuzkidura izaerako ekarpenak, betebehar honetatik salbuetsita gelditzen dira.

Gainontzeko sarrerak fundazio zuzkidura gehitzera zuzenduko dira administrazio gastuak kendu ondoren. Azken hauek, ezingo dute %20a gaingitu, Fundazioak, arrazoituz egindako eskaeraren ondorioz, Babesletzak esanbidez baimena ematen duen kasutan salbuetsita.



G 2753051

Guzti hau, indarrean dauden lege eta erreglamendu mailako xedapenen arabera.

19. ARTIKULUA. AURREKONTUAK

Bat. Zaingo Batzordeak urtero ekitaldiaren sarrera eta gastuen aurrekontuak onartuko ditu.

Bi. Sarreraren aurrekontuak, beti ere erizpide zuhurrez kalkulaturik, Fundazioaren ondasunek ekoiztea aurrikusita dagoen errendimenduen erlazioa eta 17. c) artikuluan adierazitako kontzeptuengatik sarrerak barneratuko dituzte.

Hiru. Gastuen aurrekontuak, ekitaldian egingo direnen aurrikuspena barneratuko du, eta hauen artean, gutxienez, ondarearen baliogalera edo galtzeari dagozkion mantentze eta amortizazio gastuak, giza-baliabide eta administrazio gastuak eta iharduketa egitarauaren arabera Fundazioaren helburuak lortzeko erabili behar diren kopuruak.

Lau. Ekitaldian bertan agertzen diren beharrei aurrekontua egokitzeko beharrezko edo komenigarriak diren aldaketak egin ahal izango dira.

Bost. Ekitaldi bakoitzaren amaieran, Fundazioaren Zaingo Batzordeak onartua izan den eta aurrekontuaren ezarpenaren emaitzak adierazten dituen kontuen egoera egingo da.

20. ARTIKULUA. KAPITALAREN INBERTSIOA

Bat. Fundazioaren kapitala errentagarritasun handiena lortzeko egokiena den moduan inbertituko da, beti ere, estatutuetan ezarritako hitzarmen edo Fundazioaren baliabide ekarpenak egin dituztenekin hartutako akordioak, indarrean baldin badaude, errespetatuz.

Bi. Fundazioak, edozein momentutan eta behar den guztietan, bere kapitalarekin egindako inbertsioetan ekonomi-egoeraren arabera egokiak edo beharrezkoak diren aldaketak egin ahal izango ditu, benetako balioa jaitsi ez dadin sahiesteko.

Hiru. Fundazioaren ondarean dauden Titulu-balioen jaulkitzaile diren sozietateek beraien akziodunei lehentasunezko izenpetze eskubideak emanaz kapital soziala handitzen dutenean, haunditze hori adierazten duten akzioak izenpetu edo izenpetzeko eskubidea saltzea erabaki dezake Fundazioak.

Edonola ere, Fundazioak kapital haunditze horietan parte har dezake, nahiz eta sozietate jaulkitzaileak



CLASE 2.
2. MOETA AO



G 2753052

beste ondare-ekarpen osagarri bat galdatu.

V. KAPITULUA. ESTATUTUEN ALDAKETA ETA AMAITZEA

21. ARTIKULUA. ESTATUTUEN ALDAKETA

Fundazioaren Zaingo Batzordeak, 6. artikuluan ezarritako helburua errespetatuz, Fundazioaren Estatutuen aldaketa erabaki ahal izango du.

22. ARTIKULUA. IRAUNGIPENA

Bat. Fundazioaren Zaingo Batzordeak Fundazicaren iraungipena erabaki dezake, dagozkion ondorioetarako Babesletzara bidaliz.

Bi. Fundazioaren kitapena egin ondoren gelditzen diren ondasun eta eskubideak, Zaingo Batzordeak zehazten duen kultur edo hezkuntz izaera duten entitate edo ihardueretara bideratuko dira.